

GOBERNU BATZARRA

2009. 11. 23

Behin beh. Alkatea:

Jokin Azkue Arrastoa

Zinegotziak:

Olatz Peón Ormazabal

Andoni Iturzeta Arbillaga

Yurre Peñagarikano Zubeldia

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila bederatziko azaroaren hogeita hiruan, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.-Aurreko akta onartzea.

2.-Baldintza Plegua eta Proiektua onartzea Samaniego Ikastetxeko irisgarritasun obren kontratazioa egiteko/Aprobación de proyecto y pliego de condiciones para la contratación de las obras de accesibilidad en Samaniego Ikstetxea.

3.- 29.zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2009ko azaroaren 16an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Baldintza Plegua eta Proiektua onartzea Samaniego Ikastetxeko irisgarritasun obren kontratazioa egiteko/ Aprobación de proyecto y pliego de condiciones para la contratación de las obras de accesibilidad en Samaniego Ikstetxea.

Ikusita klausula administratiboen plegua Samaniego ikastetxeko irisgarritasun proiektuak jasotzen dituen obren kontratazioa egiteko, eta Hirigintza Batzordea jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Visto el pliego de cláusulas administrativas para la contratación de las obras contenidas en el proyecto de accesibilidad en Samaniego Ikastetxea y de conformidad con el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.-Onartzea Samaniego ikastetxeko irisgarritasun proiektua, Goretti Nieva Gorritik idatzia eta 2009ko irailaren 21ean bisatua.

ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar el proyecto de accesibilidad en Samaniego Ikastetxea, redactado por la arquitecta Goretti Nieva Gorriti y con visado del 21 de septiembre de 2009.

BIGARRENA.-Espedientea onartzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez ondorengo obraren kontratazioa egiteko: Tolosako Samaniego ikastetxeko irisgarritasun proiektuko obrak (1, 2 eta 3 faseak) . Lizitazioa: Laurogeita hamaika mila hirurehun eta hirurogei euro eta berrogeita lau zentimo (91.360,44 €), BEZa sartuta.

HIRUGARRENA.- Gastua dagokion partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez obra horien kontratazioa egiteko.

BOSGARRENA.-Adjudikazio prozedurari ekitea eta, horretarako, dagozkion gonbidapenak bidaltzea.

SEGUNDO.- Aprobar el expediente para la contratación, por el procedimiento de negociado sin publicidad, de las obras contenidas en el proyecto de accesibilidad de Samaniego ikastetxea de Tolosa (fases 1, 2 y 3) cuyo tipo de licitación se determina en noventa y un mil trescientos sesenta euros con cuarenta y cuatro céntimos de euro (91.360,44€), IVA incluido.

TERCERO.- Disponer el gasto con cargo a la partida correspondiente.

CUARTO.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación de las referidas obras por el procedimiento negociado sin publicidad.

QUINTO.- Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación y, a tal efecto, cursar las invitaciones que correspondan.

3.- 29. zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak 29. faktura-zerrendak aurkeztu du, 113.312,93 €-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako 29. faktura-zerrendak onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

Beh. Beh. ALKATEA

IDAZKARIA